

URRETXU-ZUMARRAGAKO EUSKAL OILO SARIKETAKO A R A U D I A 2025

1.- ARRAZA

Sariketa honetan Euskal Herriko baserrietako larreetan ibili ohi diren EUSKAL OILOA ARRAZAKO oilo eta oilaskoek parte hartu ahal izango dute. Baldintzak hauek izango dira:

EUSKAL OILOA ARRAZAKO OILO EDO/ETA OILASKOAK

Euskal oiloa arrazak dituen 5 motetako edozein aurkeztu ahal izango da, hau da, MARRADUNA, GORRIA, LEPASOILA, BELTZA edo ZILARRA. **Baserri bakoitzeko oilo edo oilasko 3 pare aurkez daiteke** eta 6 hilabete baino gutxiagokoa izan beharko du .

Bikote onenak izendatu ahal izateko, lumaren kolorea, distira, tamaina, itxura, eta arraza nahiz mota bakoitzaren ezaugarri bereziak izango dituzte kontuan epaimahaikideek irizpide nagusi gisa.

2.- SARIKETAKO EPAIMAHAIA

Sariketako epaimahaia Urretxu eta Zumarragako alkateek izendatuko dute zinegotzi arduradunen proposamenaren arabera, eta horretarako kontuan hartuko da gai honetan adituak diren erakunde publiko nahiz pribatu edo jakitunen iritzia.

Epaimahaikideak gutxienez bi teknikari izango dira, eta gehienez bost, guztiak gai honetan jakitunak.

Udalek izendatuko dituzten langileen laguntza jasoko du epaimahaiak.
Aldez aurretik jakingo da zein diren epaimahaikideak.
Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da.

Epaimahaiak hegaztiak kaiolatik atera eta ikuskatzeko ahalmena izango du.
Epaimahaiak, atalen batean edo atal guztietan, saria merezi duenik ez dagoela ebatziz gero, sari hori eman gabe utz dezake.

3.- SARIKETAKO BALDINTZAK

Urretxu-Zumarragako Santa Lutziko oilasko sariketan parte hartzeko, oilaskozale bakoitzak oilaskoak garbi eta txukun, osasunez ondo daudenak, eta 1. puntuan esandako baldintzak betetzen dituztenak aurkeztu beharko ditu. Lehiaketatik kanpo geratuko gaixotasunen bat edo akaroak dituzten hegaztiak.

Hegaztizaleak aldez aurretik izena eman beharko du Urretxuko kultur etxean nahiz Zumarragako kultur etxean, **azaroaren 20ko** eguerdiko 12ak baino lehen; 943-03.80.88 edo 943-72.35.10 telefonoetara deituz ere egin daiteke.

Izena ematerakoan honako datuok ekarri beharko dira:

- Hegatizalearen izena, helbidea eta N.A. zenbakia.
- Hegaztiak hazitako baserriaren izena eta ustiaketa txartel zenbakia.
- Kontu zenbakia (20 digitu)

Oilaskozaleak berak ekarri beharko ditu oilo eta oilaskoak, hegaztiak lekuz aldatzeko baimen txartelarekin batera eta antolatzaileen aurrean aurkeztu abenduaren 13ko goizeko 7,30etatik 8,30etara bitartean, Kalebarren-Areizaga plazan eta ezin izango dira jaso eguerdiko ordu biak arte.

- **Oharra: Hegaztiak lekuz aldatzeko baimen txartela aurkeztea ezinbestekoa da parte hartzeko**

Antolatzaileek ez dute bere gain hartuko sariketara ekarritako hegaztien lapurretarik, min hartzerik, ez bestelakorik.

4.- SARIAK

2025eko sariak honakoak izango dira:

Euskal oiloa arrazako oilo edo/eta oilaskoak:

3 sari (gehienez) 150€koak

Eskualdekoa bada 125€ko gehigarria* izango du

Sariketan parte hartu baina saririk jaso ez duen gainerako pareagatik 35 euroko dieta (*) jasoko dute (beraiek emandako kontu zenbakian sartuko zaie dirua).

(*) PFEZren atxikipenari lotutako dieta (%19)

Sariak Kalebarren-Areizaga plazan banatuko dira, Santa Lutzi egunean bertan eguerdiko 1,30etan hasiko den ekitaldian.

Hegatizalea ez bada ageri sari banaketan, sariari uko egin diola ulertuko da.

Oharrak:

- Partehatzzaileak bere oilo eta oilaskoak saltzeko aukera izango du.
- Eskualdean*: Legazpi, Zumarraga, Urretxu, Ezkio-Itsaso, Gabiri eta Ormaiztegi sartzen dira.
- Lehiaketa egiteko gutxienez 4 parte-hartzaile behar dira.